JUNTAS GENERALES DE ALAVA

ARABAKO BILTZAR NAGUSIAK

SUPLEMENTO
al Boletín Oficial del Territorio Histórico de Álava

GEHIGARRIA
Araba Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofiziala

81. zk. 2002ko uztailaren 19a, ostirala - Viernes, 19 de julio de 2002 nº 81

## ARABAKO BILTZAR NAGUSIAK

**4.564**

Arabako Biltzar Nagusiek, 2002ko uztailaren 8an egindako Osoko Bilkuran, ondoko Foru Araua onetsi zuten:

8/2002 FORU ARAUA, UZTAILAREN 8KOA, MUGA-ALDEETAKO BIDE SAREAN OBRAK EGIN, FINANTZATU ETA GAUZATZEKO ARABAKO FORU ALDUNDIAREN ETA GAZTELA ETA LEONGO JUNTAREN SUSTAPEN SAILAREN ARTEKO BERARIAZKO LANKIDETZA HITZARMENA BERRESTEKOA.

1999ko maiatzaren 26an, Arabako Foru Aldundiak eta Gaztela eta Leongo Juntaren Sustapen Sailak beren arteko Lankidetzarako Protokoloa izenpetu zuten bide sarearen muga-aldeetan obrak planifikatu, egin, finantzatu eta gauzatzeko. Protokolo hori aplikatuz, haren Jarraipenerako Bitariko Batzordea eratu zen.

Protokolo hori betetzeko, hartan esku hartzen duten administrazioetako bakoitzak ekin zion bere gain jarritako proiektuak gertatzeari. Bi hauek dira: Gasteiz – BU-741 errepidea egokitzeko proiektua, Arabako Foru Aldundiak egina, eta Pancorbo-Orduña errepidean, Puentelarran, Ebro ibaiaren gaineko zubiarena, Gaztela eta Leongo Autonomia Erkidegoak egina.

Protokoloaren Jarraipenerako Batzordeak erabaki zuen, bi administrazioek bi proiektu horiek onartu eta gero, aipatutako obrak kontratatu eta finantzatzeko bide ematen duen berariazko lankidetza hitzarmena izenpetu behar dela.

Abenduaren 18ko 52/1992 Foru Arauak, Arabako Foru Aldundiaren Antolaketa, Funtzionamendu eta Lege Araubidearenak, bere 6.1.2. artikuluan dioena kontuan hartuz,

ARTIKULU BAKARRA

Berretsi egiten da “Muga-aldeetako bide sarean obrak egin, finantzatu eta gauzatzeko Arabako Foru Aldundiaren eta Gaztela eta Leongo Juntaren Sustapen Sailaren arteko Berariazko Lankidetza Hitzarmena”, Diputatuen Kontseiluak ekainaren 4ko 437/2002 Erabakian xedatu zuen moduan.

Vitoria-Gasteiz, 2002ko uztailaren 9a.– Lehendakaria, XESQUI CASTAÑER LÓPEZ.

## JUNTAS GENERALES DE ALAVA

**4.564**

Las Juntas Generales de Álava, en Sesión Plenaria celebrada el día 8 de julio de 2002, aprobaron la siguiente Norma Foral:

NORMA FORAL 8/2002, DE 8 DE JULIO, DE RATIFICACIÓN DEL CONVENIO ESPECÍFICO ENTRE LA DIPUTACIÓN FORAL DE ÁLAVA Y LA CONSEJERÍA DE FOMENTO DE LA JUNTA DE CASTILLA Y LEÓN PARA LA CONSTRUCCIÓN, FINANCIACIÓN Y EJECUCIÓN DE OBRAS EN LA RED VIARIA DE ZONAS COLINDANTES.

El 26 de mayo de 1999 se firmó el Protocolo de Colaboración entre la Diputación Foral de Álava, la Consejería de Fomento de la Junta de Castilla y León para la planificación construcción, financiación y ejecución de obras en zonas colindantes de la Red Viaria, constituyéndose, en aplicación de dicho Protocolo, una Comisión Mixta de Seguimiento del mismo.

En cumplimiento de este Protocolo, por parte de cada una de las Administraciones intervinientes se ha procedido a la elaboración de los proyectos encomendados, el de acondicionamiento de la carretera Vitoria-Gasteiz - BU-741 redactado por la Diputación Foral de Álava y el del puente sobre el río Ebro en la carretera Pancorbo - Orduña en Puentelarrá redactado por la Comunidad de Castilla y León.

La Comisión de Seguimiento del Protocolo acordó que, una vez aprobados los dos proyectos por ambas Administraciones, procede la suscripción del correspondiente Convenio Específico de Colaboración que permita la contratación y financiación de las obras citadas.

Considerando lo dispuesto en el artículo 6.1.2 de la Norma Foral 52/1992, de 18 de diciembre de Organización, Funcionamiento y Régimen Jurídico de la Diputación Foral de Álava.

ARTICULO ÚNICO

Se ratifica el “Convenio Específico de colaboración entre la Diputación Foral de Álava y la Consejería de Fomento de la Junta de Castilla y León para la construcción, financiación y ejecución de obras en la red viaria de zonas colindantes”, en los términos acordados por el Consejo de Diputados en su Acuerdo número 437/2002, de 4 de junio.

Vitoria-Gasteiz, 9 de julio de 2002.– La Presidenta, XESQUI CASTAÑER LÓPEZ.

## ARABAKO BILTZAR NAGUSIAK

**4.565**

3/2002 ZERGA-PREMIAZKO ARAUGINTZA-DEKRETUA, EKAINAREN 4KO DIPUTATUEN KONTSEILUARENA, ZENBAIT HIDROKARBUROREN TXIKIZKAKO SALMENTEN GAINEKO ZERGA ARAUTZEN DUENA.

Arabako Biltzar Nagusiek 2002ko uztailaren 8an egindako Osoko Bikuran erabaki zuten berrestea 3/2002 Zerga-Premiazko Araugintzako Dekretua, ekainaren 4ko Diputatu Kontseiluarena, zenbait Hidrokarburoren Txikizkako Salmenten gaineko Zerga arautzen duena.

## JUNTAS GENERALES DE ALAVA

**4.565**

ACUERDO DE CONVALIDACIÓN DEL DECRETO NORMATIVO DE URGENCIA FISCAL 3/2002, DEL CONSEJO DE DIPUTADOS DE 4 DE JUNIO, QUE REGULA EL IMPUESTO SOBRE LAS VENTAS MINORISTAS DE DETERMINADOS HIDROCARBUROS.

Las Juntas Generales de Alava, en Sesión Plenaria celebrada el día 8 de julio de 2002, acordaron convalidar el Decreto Normativo de Urgencia Fiscal 3/2002, del Consejo de Diputados de 4 de junio, que regula el Impuesto sobre las Ventas Minoristas de determinados

Dekretu hau Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofizialaren 66. zenbakian argitaratu zen 2002ko ekainaren 12an.

Vitoria-Gasteiz, 2002ko uztailaren 10a.– Lehendakaria, XESQUI CASTAÑER LÓPEZ.

## ARABAKO BILTZAR NAGUSIAK

**4.566**

Arabako Biltzar Nagusiek 2002ko uztailaren 8ko Osoko Bilkuran honako Mozioa onetsi zuten:

16/2002 MOZIOA, UZTAILAREN 8KOA, LANGABEZI PRESTAZIOAREN ERREFORMAREN NEURRIEI BURUZ.

Arabako Biltzar Nagusiak Madrilgo Popular Taldeko Gobernuak bultzatu duen langabezi babesaren sistemaren erreformaren aurka agertzen dira. Eremu honetan egin daitekeen erreformarik bidegabekoena eta atzeragarriena izateaz gain, ez dela eraginkorra uste baitute.

Arabako Biltzar Nagusiek Espainiar Gobernuari eskatzen diote maiatzaren 24ko 5/2002 Lege Dekretua indargabetu dezan, eta okupazioa hobetzeko langabezi babes sistemaren erreforman behar diren premiazko neurriak ezarri ditzan, erreforma hau bidegabekoa eta ez eraginkorra delako eta ez du hobetzen ez enplegua ezta Enpleguaren Zerbitzu Publikoaren funtzionamendua.

Arabako Biltzar Nagusiek Espainiar Gobernuari eskatzen diote Gizarte Eragile guztiekin eta autonomia-erkidego guztiekin negoziazio prozesu bat has dezan enplegua eta gizarte estaldura hobetzera bideratuta, aurretik inolako baldintzarik jarri gabe.

Vitoria-Gasteiz, 2002ko uztailaren 10a.– Lehendakaria, XESQUI CASTAÑER LÓPEZ.

## ARABAKO BILTZAR NAGUSIAK

**4.567**

Arabako Biltzar Nagusiek 2002ko uztailaren 8ko Osoko Bilkuran honako Mozioa onetsi zuten:

15/2002 MOZIOA, UZTAILAREN 8KOA, ZEINAREN BIDEZ ARABAKO BILTZAR NAGUSIEK PARTIDUEN LEGEAREN GAURKOTZEA ETA ERREFORMA BABESTEN DUTEN.

1) Arabako Biltzar Nagusiek Partiduen Legearen gaurkotzea eta erreforma babesten dute, horrela demokrazia eta gure Konstituzioan jasotzen diren oinarrizko eskubideak hobeto defendatuz.

2) Arabako Biltzar Nagusiek Zuzenbidezko Estatuaren legaltasunetik ETAko terrorismoren aurka eta bere konplizeen aurka joatea ahalbideratzen duten neurrien alde agertzen dira.

3) Arabako Biltzar Nagusiek Lege hau izapidetzean lortu den adostasun maila handia azpimarratu nahi dute, Diputatuen Kontseiluan ikusten den bezla, non ordezkatzen diren indar politikoen %90a alde agertu baita.

Vitoria-Gasteiz, 2002ko uztailaren 10a.– Lehendakaria, XESQUI CASTAÑER LÓPEZ.

## ARABAKO BILTZAR NAGUSIAK

**4.569**

**Iragarkia**

Carmen Ramos Orúe eta Juan Carlos Prieto, Euskal Sozialistak Biltzarkide Taldekoak, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko mozioa emakumeen kontrako biolentziaren Lege Integralari buruz.

Mozio hau Arabako Biltzar Nagusien Iharduera Arautegiko 156. artikuluan aipatuetako bat da, eta beraz, artikulu horri jarraituz, zazpi eguneko epea zabaltzen da biltzarkide taldeek Mozio horretarako emendakinak aurkez ditzaten.

Vitoria-Gasteiz, 2002.eko uztailaren 9.ean.– Lehendakaria, XESQUI CASTAÑER LÓPEZ.

Hidrocarburos, tal como fue publicado en el BOLETÍN OFICIAL del Territorio Histórico de Alava número 66 de fecha 12 de junio de 2002.

Vitoria-Gasteiz, 10 de julio de 2002.– La Presidenta, XESQUI CASTAÑER LÓPEZ.

## JUNTAS GENERALES DE ALAVA

**4.566**

Las Juntas Generales de Álava en Sesión Plenaria celebrada el día 8 de julio de 2002, aprobaron la siguiente Moción:

MOCIÓN 16/2002, DE 8 DE JULIO, REFERENTE A LAS MEDIDAS DE REFORMA DE LA PRESTACIÓN DE DESEMPLEO.

Las Juntas Generales de Álava muestran su más firme oposición a la reforma del sistema de protección por desempleo, impulsada por el gobierno del Partido Popular en Madrid. Consideran que se trata de la reforma más injusta y regresiva de las que se podían emprender en este ámbito, y que carece totalmente de eficacia.

Las Juntas Generales de Álava instan al Gobierno Español a derogar el Decreto Ley 5/2002, de 24 de mayo, de medidas urgentes para la reforma del sistema de protección por desempleo y mejora de la ocupabilidad, por resultar injusta e ineficaz y no mejorar el empleo ni el funcionamiento de los Servicios Públicos de Empleo.

Las Juntas Generales de Álava exigen al Gobierno del Estado que abra un proceso de negociación con todos los Agentes Sociales y las Comunidades Autónomas que, sin condiciones previas, esté encaminado a la mejora del empleo y la cobertura social.

Vitoria-Gasteiz, a 10 de julio de 2002.– La Presidenta, XESQUI CASTAÑER LÓPEZ.

## JUNTAS GENERALES DE ALAVA

**4.567**

Las Juntas Generales de Álava en Sesión Plenaria celebrada el día 8 de julio de 2002, aprobaron la siguiente Moción:

MOCIÓN 15/2002, DE 8 DE JULIO, POR LA QUE LAS JUNTAS GENERALES DE ÁLAVA RESPALDAN LA REFORMA Y ACTUALIZACIÓN DE LA LEY DE PARTIDOS.

1.- Las Juntas Generales de Álava respaldan la reforma y actualización de la Ley de Partidos en aras de una mejor defensa de nuestra democracia y de los derechos fundamentales recogidos en la Constitución.

2.- Las Juntas Generales de Álava apoyan todas las medidas que, desde la legalidad y el Estado de Derecho, contribuyan a la lucha contra el terrorismo de ETA y sus cómplices.

3.- Las Juntas Generales de Álava quieren resaltar el altísimo consenso alcanzado en la tramitación de esta Ley, tal como se refleja con el apoyo de más del 90% de las fuerzas políticas representantes en el Congreso de los Diputados.

Vitoria-Gasteiz, 10 de julio de 2002.– La Presidenta, XESQUI CASTAÑER LÓPEZ.

## JUNTAS GENERALES DE ALAVA

**4.569**

**Anuncio**

Carmen Ramos Orúe y Juan Carlos Prieto, del Grupo Juntero Socialistas Vascos, presentan Moción para debate en Pleno en relación con la Ley Integral contra la violencia hacia las mujeres.

La Moción es de las señaladas en el artículo 156 del Reglamento de Funcionamiento de estas Juntas Generales de Álava, por lo que de acuerdo con el citado artículo, se abre un período de siete días durante los cuales los Grupos Junteros podrán presentar enmiendas a la citada Moción.

Vitoria-Gasteiz, a 9 de julio de 2002.– La Presidenta, XESQUI CASTAÑER LÓPEZ.